DOCUMENTO DE AVANCE

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS SUBVENCIONES PARA EL AISLAMIENTO ACÚSTICO EN EDIFICACIONES RESIDENCIALES AFECTADAS POR EL RUIDO GENERADO POR LAS CARRETERAS FORALES

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, en el marco del *"Plan de Acción para la Mejora de la Calidad Sonora de las carreteras de Bizkaia para el período 2014-2019"* (PAMCS 2014-2019)", pone en marcha mediante el Decreto de subvenciones al que se refiere el presente documento de avance, el *"Plan de Aislamiento Acústico en Edificaciones"*.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial ha ido elaborando los preceptivos mapas de ruido y los correspondientes planes de acción, en cumplimiento de la normativa reguladora del ruido.

En este contexto, las medidas adoptadas se encaminaban a alcanzar los objetivos de calidad acústica en el ambiente exterior de las edificaciones afectadas, sobre todo mediante un gran esfuerzo en la instalación de pantallas acústicas, hasta el punto que actualmente se encuentras en servicio más de 33 kilómetros de pantallas, ejecutadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

En la situación actual, la posibilidad de continuar instalando pantallas acústicas se reduce debido a, fundamentalmente, la escasa eficacia de las mismas, dificultad técnica de su instalación y/o problemas de diseño y encaje urbanístico.

Por este motivo, el Decreto que se tramita, se centra ahora en la mejora del aislamiento acústico de los edificios residenciales afectados, mediante la sustitución de ventanas por otras de mayor capacidad de aislamiento acústico, para conseguir al menos alcanzar en el interior de las estancias con usos sensibles los objetivos de calidad acústica.

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

La necesidad de abordar estas actuaciones, viene impuesta

AURRERAPEN AGIRIA

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA, FORU ERREPIDEEK SORTZEN DUTEN ZARATAK UKITUTAKO BIZITEGI-ERAIKINEN ISOLAMENDU AKUSTIKORAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN AURRERAPENARI DAGOKIONA.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, «Bizkaiko foru errepideetan soinu-kalitatea hobetzeko ekintza plana — 2014-2019 aldia» (PAMCS 2014-2019) planaren barruan, «Eraikinetako isolamendu akustikorako plana» abiarazi du, aurrerapen-dokumentu honetan aipatzen den diru-laguntzen dekretuaren bitartez.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila egin beharreko zarata-mapak eta ekintza-planak egiten aritu da, zaratari buruzko araudian ezarritakoa betetzeko.

Testuinguru horretan, orain arte hartu diren neurriak ukitutako eraikinen kanpoaldean kalitate akustikoaren helburuak lortzera bideratuta egon dira; batez ere, ahalegin handia egin da pantaila akustikoak instalatzeko, hainbesteraino, non gaur egun 33 kilometro baino gehiago jarrita baititu Bizkaiko Foru Aldundiak.

Egungo egoeran, aukera gutxiago dago pantaila akustikoak instalatzeko, batez ere, ez direlako oso eraginkorrak, instalatzeko zailtasun teknikoak daudelako, edota diseinatzeko eta hiriko paisaian integratzeko zailtasunak daudelako.

Hori dela eta, izapidetzen ari den dekretuaren bidez, ukitutako bizitegi-eraikinen isolamendu akustikoa hobetu nahi da; horretarako, jarrita dauden leihoen ordez isolamendu akustiko hobea duten beste batzuk jarri nahi dira, behintzat zarata dela-eta bereziki sentikorrak diren geletan kalitate akustikoaren helburuak lor daitezen.

b.- Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

Jarduketa horiek abian jartzeko beharrizanaren oinarria da

por las disposiciones legales en materia de ruido que obligan a las administraciones y entes gestores de las infraestructuras viarias a elaborar mapas estratégicos de ruido y sus correspondientes planes de acción, donde se deben incluir las medidas necesarias para el cumplimiento de los objetivos de calidad acústica en las áreas donde se superen los umbrales establecidos.

zarataren arloko lege-xedapenak bete beharra, administrazioa eta errepide-azpiegiturak kudeatzen dituzten entitateak zarataren mapa estrategikoak eta mapa horiek garatzeko ekintza-planak egitera behartzen baitituzte. Eta, ezarritako zarata-atalasea gainditzen den eremuetan, kalitate akustikoaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren neurriak zein diren jaso behar da mapa eta ekintza-plan horietan.

c.- Objeto de la norma

El Decreto tiene por objeto adoptar medidas para alcanzar los objetivos de calidad acústica en el interior de las estancias sensibles en aquellas edificaciones de uso residencial afectadas por el ruido de las carreteras forales, donde no resultan eficaces, viables técnica y/o urbanísticamente, otras medidas para alcanzar dichos objetivos en el exterior de las mismas.

c.- Arauaren xedea

Dekretuaren xedea da neurriak hartzea zarata dela-eta bereziki sentikorrak diren gelen barruan kalitate akustikoko helburuak lortzeko, hau da, foru errepideetako zaratak ukitutakoetan; izan ere, etxebizitza horien kanpoaldean kalitate akustikoko helburuak lortzeko neurriak ez dira eraginkorrak, ezta teknikoki eta/edo hirigintza aldetik bideragarriak ere.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

La legislación acústica europea, nacional y autonómica señala que los órganos gestores del ruido adoptarán mediante la aprobación de los planes de acción medidas correctoras que mitiguen el impacto acústico bajo el principio de proporcionalidad económica de la solución.

Las soluciones técnicas posibles han sido analizadas por el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y se centran en actuaciones mediante pantallas acústicas y la mejora del aislamiento acústico de los edificios.

Tanto el primer Plan de Acción desarrollado entre los años 2008-2013, como el presente Plan de Acción comprendido entre los años 2014-2019, se han dirigido fundamentalmente a la adopción de medidas correctoras acústicas mediante instalación de pantallas acústicas dado que la solución mediante pantalla acústica resultaba viable.

En la actualidad están prácticamente culminadas las actuaciones posibles con pantallas acústicas.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

Zarataren arloko Europako, Estatuko eta EAEko legerian ezartzen denez, zarata kudeatzen duten organoek inpaktu akustikoa arintzeko neurri zuzentzaileak hartu behar dituzte, ekintza-planen bidez; kasuan kasuko irtenbidea, betiere, proportzionaltasun ekonomikoaren printzipioan oinarritu behar da.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak hainbat irtenbide tekniko aztertu ditu, eta guztiek ere pantaila akustikoak instalatzea eta eraikinen isolamendu akustikoa hobetzea dituzte oinarri.

Bai 2008-2013 urteen artean garatutako ekintza-planaren bai 2014-2019 urteen arteko ekintza-plan honen neurri zuzentzaileak, batez ere, pantaila akustikoen instalazioan oinarritu dira, pantaila akustikoak instalatzea irtenbide bideragarria izan baita.

Gaur egun, ia agortu dira pantaila akustikoen bidez egin daitezkeen jarduketak.

Y para poder abordar situaciones más complejas donde las carreteras forales atraviesan núcleos de población densamente poblados, con viviendas de elevada altura y próximas a las infraestructuras viarias, y donde no es viable instalar pantallas acústicas dada su escasa eficacia y elevado coste, es necesario estudiar soluciones de mejora de aislamiento acústico de los recintos sensibles de los edificios para cumplir los objetivos de calidad acústica en

Eta, egoera konplexuagoei aurre egiteko, zarata dela-eta bereziki sentikorrak diren gelen isolamendu akustikoa hobetzeko konponbideak aztertu behar dira, gela horien barruan kalitate akustikoaren helburuak betetzeko. Egoera konplexu horiek gertatzen dira, besteak beste, foru errepideek populazio handiko hiriguneak zeharkatzen dituztenean, errepide-azpiegituretatik hurbil dauden altuera handiko etxebizitzak dituztenak, zeinetan ez den bideragarria pantaila akustikorik instalatzea, ez baitira

## e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

El PAAE pretende abordar esta problemática de manera gradual empezando por los casos más graves, por lo que las subvenciones van dirigidas exclusivamente a personas físicas, jurídicas o asociaciones sin ánimo de lucro, titulares de los edificios de uso residencial afectados por el ruido de las carreteras forales, donde se superen los 65 dB(A) de nivel de presión sonora continuo equivalente determinado en el periodo noche. El orden de prioridad se establecerá atendiendo a las siguientes variables para cada edificación:

- Número de personas expuestas a niveles que superan los Objetivos de Calidad Acústica (OCA) en periodo nocturno.

- Niveles (OCA) a los que está expuesta dicha población.

## e.- Arau-proposamenak ukitutako helburu publikoak eta nortzuei zuzendu behar zaien.

PAAEren asmoa da arazo horri apurka-apurka erantzutea, kasurik larrienetatik hasita. Horregatik, diru-laguntzak foru errepideek ukitutako bizitegi-eraikinen titularrak diren irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko, juridiko edo elkarteei zuzenduta daude, eraikin horietan gauerako ezarri den soinu-presioaren maila 65 dB(A) mailatik gorakoa bada. Lehentasun-hurrenkera eraikin bakoitzerako aldagai hauek kontuan hartuta ezarriko da:

- Gauez kalitate akustikoaren helburuak gainditzen dituzten mailak jasaten dituen pertsona kopurua.

- Herritar horiek jasaten duten zarata-maila, kalitate akustikoaren helburuak kontuan hartuta.